

Maitasuna atxikitzea da ala askatzea?

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Existitzen diren gauza guztien artean, batzuk gure esku daude eta bertze batzuk ez. Gure kontuak dira gure iritziak, ekintzak, desioa eta nazka; ez, ordea, gure gorputza, jabetzak, bertzeek gutaz pentsatzen dutena eta karguak. Gure esku dauden gauzak libreak dira, eta gure esku ez daudenak, mendekoak. Biak ongi bereiztea da, Epiktetoren ustez, kontent bizitzeko gakoa.

Ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, sufritu egiten dugu aldatu ezin duguna aldatu nahi dugunean, eta baita alda dezakeguna ezin dugula aldatu sentitzen dugunean ere. Ze lasaitua gureak

ez diren erronkak askatzen ditugunean, eta ze indarra gure zentzu sakonaren ardura hartzen dugunean!

Epikteto esklabo liberatua eta filosofo estoikoa izan zen. Gure aroko I. mendean bizi izan zen, eta filosofia eskola bat sortu zuen. Bere ikasle baten, Arrianoren, apunteek osatzen dute gureganaino heldu den eta planteamendu erradikaletan barrena dardaratzen gaituen “Enkiridion edo eskuliburua”.

Ildo beretik, egia handi batzuk biltzen ditu Khalil Gibranen poema eza-gun batek. Hasiera indartsua du: «Zure umeak ez dira zure umeak,/ bizitzarenak dira». Eta ederra da amaiera: «Zu

zara arkuaren zeinetatik zure umeak,/ gezi biziak bezala,/ jaurtiak diren./ Utzi inklinazioa,/ zure arkulari eskuan,/ zoriontasunera izan dadin».

Poeta libanoarra baino harago doa Epikteto, erraten baitu gure bizitza ere bizitzarena dela eta ez gurea. Bidaia-riak ostatu batean bezala bizitzera gonbidatzen gaitu. Honekin lotuta, galdera bat egiten ahal diogu gure buruari: zer da maitasuna, atxikitzea ala askatzea? Maitasunak onartzen al ditu baldintzak? Nik uste dut ezetz, eta hor dagoe-la askatasuna, baina posible al da ez atxikitzea? A ze barne bidaia filosofo hauen eskutik egindakoa... •

Lurra

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Lurra bizitzeko tokia baino askoz gehiago da. Pachamama edo Amalur jainkosak eta kulturallak dira; ordea, nik nahiago ditut bere gordinean ulertu, lurrarekin dugun harreman arrazionalari heldu, kulturari. Lurra emankorra da, bai, nahiz eta jasoko badugu eman egin behar diogun, zaindu, ongarritu eta maitatu. Halere, zenbat buru hainbat aburu, lurretik eraiki dugu bizitza eta, hala ere, bizimoldearen izenean triskantza eragiteko ez da gizakiak beste gaitasun duenik.

Erljioak ere bere begitik dio begiratzten: Itun Zarrak dio Jainkoak sortu zue-

la lehen gizaki Adam lurraren hautsetik (Génesis 2:7), eta Evarekin egin bekatuagatik bota ziola maldizioa: «Zure aurpegiko izerdiarekin ogia jango duzu lurre-ra itzuli arte, lurretik hartua izan baitzinen; hauts zara eta hauts bihurtuko zara» (Génesis 3:19).

Ez dakit uda gau garbia izango zen hartan Xabier Lete oiartzuarrak zerura begiratu eta Itun Zarreko pasarte horiek izango ote zituen buruan, baina nago jainkorik ez zuela ikusi Letek eta izarren argitan galdu zitzaizkiola begiak, irudimena dantzan jarri eta “Izarren Hautsa” poema aparta ernaltzeraino.

Lurretik ala izarretatik sortuak izan... nahiago Itun Zarreko pasarteei baino Xabier Leteren imajinazioari lotu, gure sustraiak lurrari lotu, ukazioa legetzat hartu eta beti aurrera joatea... Eta Mikel Laboaren ahotsean, zer esanik ez.

Nahiago Izarren Hauts dirdiratsuetatik ernatu, naftalina usaineko Jainko ahalguztidun baten hatsetik beharrean.

Barnera dezagun lurra dela bizitzaren erdigunea, eta kalte egiten dionari aurre egin, ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legetzat hartuz... Lotu lurrari eta, Ruper gure jainko bakarrak dion moduan, zaindu maite duzun hori. •